



Gida didaktikoa

▽
DBH eta Batxillergoa



FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA



ORQUESTA
SINFÓNICA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA

Jarduera

Ikasleei entsegu orokor bat aurkeztea

Suzko txoria Igor Stravinskiren lehen lan arrakastatsu handia izan zen, Diághilev-en Ballet Errusiarrek 1910ean Parisko Operaren Antzokian estreinatua. Errusiako ipuin tradizional batean oinarritua, balletak tradizioa eta modernotasuna uztartzen ditu partitura liluragarrian, oparoa bai orkestra-koloretan, bai harmonia-berrikuntza ausartetan. Lanak ospe handia eman zion Stravinskiri, XX. mendeko musikaren funtsezko figuretako bat izan baitzen.

Jatorrizko balletak 19 zenbaki zituen, eta horietatik abiatuta hiru orkestra-suite egin zituen, 1911n, 1919an eta 1945ean. Hirugarren eta azkena Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entsegu orokor honetan entzungo duguna da, Perry So zuzendari titular eta artistikoaren batutapean.

Maria Setuain Belzunegui musika bitartekariak aurkeztuko du kontzertua.

Helburuak

- Entzumen musikal aktiboa garatzea eta entzute arretatsua sustatzea.
- Programaren protagonistak eta ikuskizunaren barruan betetzen duten zeregina ezagutzea.
- Musika sinfonikoak beste diziplina artistiko batzuekin duen harremana aztertzea.
- Musika-lanarekiko interesa piztea.
- Ikaslea motibatzea kontzertu batera joan dadin.
- Antzoki edo entzunareto batean entzuteko ohiturak eta portaera egokia finkatzea.
- Ikasgelan ikaskideek eta artistek kontzertuaren egunean egiten dituzten esku-hartzeak zentzuz baloratzea.

Entsegu orokorra

Entsegu orokor bat **azken lan saioa da**, kontzertuaren aurretik egiten den behin betiko froga. Bertan egiaztatzen da dena prest dagoela programa bat kontzertuan interpretatzeko. Interprete guztiak bertaratzen dira: orkestrako musikariak, obra sinfoniko-koralen kasuan abesbatza eta bakarlariak, baldin badaude, guztiak zuzendariaren batutapean.

Musikarientzat, elkarrekin entzuteko eta zailtasun handiena duten pasarteak zuzendu edo ukitu ahal izateko azken aukera da, osotasunaren interpretazioa doitzeko, zuzendariak aurreko entsegu saioetan markatu dituen oharren arabera. Salbuespen gisa, bakarlari batzuekin lan egiten den une bakarra izan daiteke entsegu orokorra. Entsegu orokorra su-froga dela esan genezake.

Orkestra-entsegu batera gonbidatuak izateak lan-saio hori emankorra izan dadin eta interpreteak ateak itxita egiten diren beste edozein entseguetan bezain eroso senti daitezen laguntzeko konpromisoa eta erantzukizuna eskatzen digu.

Entsegu orokorra

Jarduera hori tresna egokia izan daiteke kontzertuetara eta bestelako ikuskizunetara joatean jarrera egokiak hartzeko, funtsezko zenbait **gaitasunekin** lotuta: herritarren gaitasuna, gaitasun pertsonala eta soziala, kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna...

Gainera, **musika entzutearekin** lotutako jarrerak landuko ditugu, entsegu bateko ikusleengandik espero dena erakusteko asmoz: entzute isila, jakinmina eta adi, interpretazioaren amaierara arte.

Baina kontua ez da entzutea bakarrik, **musika ikusten** ere ikas dezakegu. Orkestra sinfoniko batean, asko dago erreparatzeko musikariei eta instrumentu-familiei edo tinbre-sekzioei begiratzen badiegu:


- Non kokatzen dira? Nola eusten, manipulatzeko eta jotzen dituzte instrumentuak? Zer egiten dute jotzen ez dutenean?
- Nola antolatzen dira musikariak atriletan? Nola erlazionatzen dira elkarren artean? Eta zuzendariarekin?
- Nolakoa da agertokira sartzeko protokoloa? nor da sartu den azken artista? nolakoa da afinazioa?
- Zer tonu erabiltzen du aurkezleak publikoarekin hitz egiteko? nola aritzen da orkestra eta zuzendariarekin?

Orkestra

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria, [Perry So](#)

Aurkezlea, [María Setuáin Belzunegui](#)



Gaur egungo [Nafarroako Orkestra Sinfonikoa](#) Pablo Sarasate biolinjotzaileak sortu zuen 1879an, eta, horri esker, Estatuko orkestra talde aktiborik zaharrena da. Egungo zuzendari titular eta artistikoa [Perry So](#) da, 2022ko irailean izendatua.

Zuzendaria

Perry So (Hong Kong, 1982) prestakuntza sendoa du pianoan, organoan, biolinean, biolan eta konposizioan. Yaleko Unibertsitatean graduatu zen eta Baltimoreko Peabody Institutuen zuzendaritzan espezializatu zen. Bertan, San Petersburgoko Prokofiev Nazioarteko Lehiaketan Lehen Saria lortu zuen. Hong Kong-eko Orkestra Filarmonikoaren laguntzailea eta zuzendari elkartua izan da eta 30 orkestra baino gehiago zuzendu ditu mundu osoan, hala nola Londresko Orkestra Filarmonikoa, San Frantziskoko Orkestra Sinfonikoa eta Galesko Orkestra Nazionalea. Nazioarteko produkzioetan ere nabarmendu da opera-zuzendari gisa, eta bira garrantzitsuak egin ditu Europan, Afrikan eta Asian. Gaur egun, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titular eta artistikoa da, eta Manhattan School of Music-eko Musika Zuzendaritza Fakultateko kide da. BBCrekin egin dituen grabazioek onarpen handia jaso dute, 2021eko Diapason d'Or sari entzutetsua barne.



Bitartekaria

María Setuain Belzunegui txikitatik bizi izan zuen musika, etxean, nahiz eta profesionalki trebatzeko erabakia beranduago heldu zen, bokazioz. Kontserbatorioan ikasketak hasi ondoren, interpretatzeaz gain, irakastea eta komunikatzea ere gustatzen zitzaiola ohartu zen. Sorbonako Unibertsitatean zabaldu zuen bere prestakuntza, eta Soziologia eta Bitartekaritza Musikalean espezializatu zen. Musika-bitartekaritzan espezialista gisa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin lankidetzan ari da ia duela hamar urtetik. Denbora tarte horretan, publiko eta kolektibo ezberdinekin sentsibilizazio jarduerak gidatzeko aukera izan du, musika “klasikoa” milaka pertsonengana hurbilduz.

- Ba al zenuten bitartekaritza musikalaren berririk? eta beste testuinguru batzuetan?
- Zuen ustez, zein da Mariaren misioa programa honetan?
- Nola prestatuko zenukete kontzertu baten aurkezpena?




Igor Stravinsky

Errusian jaio zen 1882an, baina geroago frantsesa eta gero iparramerikarra nazionalizatu zen. XX. mendearen hasierako irudi mugitua eta aldakorra irudikatzen du, bere lagun Pablo Picasso pinturan bezala. New Yorken hil zen 1971n.

Konpositorea izateaz gain, pianista eta orkestra zuzendaria ere izan zen. Bere estiloa kalifikaezina da eta bere lanetan alderdi anitzenak ukitu ditu: erritmoaren bilakaera, herrikoia eta folklorea, klasikoetara itzultzea, jazz edo tangoa bezalako mugimendu berrietan inspiratzea, erlijiosoa, eta abar. 1910ean publikoa eta kritika miretsita geratu ziren *Suzko txoria* lanaren kolore handiarekin.

Etengabeko berrikuntza zela eta, erreakzio kontrajarriak eragin zituen, hala nola *Udaberriaren sagaratzea* (1913), bere garaian eskandalua suposatu zuen balleta, nahiz eta gerora maisulantzat jo izan den.



Igor Stravinsky (Pablo Picasso)

Musika-lana

Suzko txoria

Igor Stravinskyren suitea
(1945eko edizioa)
Iraupena: 30 minutu inguru

Orkestazioa:

2 flauta, 2 oboe eta adar
ingelesa, 2 klarinete, 2 fagot.
4 tronpa (fa), 2 tronpeta (do)
hiru tronboi, tuba.
Tinbalak, bonboa, platerak,
triangelua, xilofonoa.
Harpa eta pianoa
Hariak

- I. [Sarrera](#)
- II. [Suzko txoriaren dantza](#)
- III. [Suzko txoriaren bariazioa](#)
- IV. [Pantomima I](#)
- V. [Pas de deux: Suzko txoria eta Iván Tsarévich](#)
- VI. [Pantomima II](#)
- VII. [Printzesen dantza \(Scherzo\)](#)
- VIII. [Pantomima III](#)
- IX. [Printzesen erronda «Khodorove»](#)
- X. [Kaschéi eta bere mendekoen infernuko dantza](#)
- XI. [Berceuse \(Lotarako kanta\)](#)
- XII. [Amaiera](#)

Musika-lana

Sergei Diaghilev izan zen Stravinskyren ibilbide profesionala gehien markatu zuen pertsonetako bat. Antzerki enpresari honek Errusiar Balletak sortu zituen, munduan zehar ikuskizun berritzaileak eskaintzen zituen ballet konpainia bat. Ikuskizun horietako baterako, 1910ean, Diaghilevek Igorri eskatu zion ballet bat egiteko, eta hari *Suzko txoria* deitu zion. Stravinskyk 27 urte zituen eta bost hilabetetan osatu zuen ballet osoa.

Parisko Operaren Antzokian estreinatu zen 1910eko maiatzaren 25ean, Errusiar Balletak eta [Mikhail Fokineren koreografiarekin](#). *Suzko txoria* balletak 19 zati ditu, eta horietatik abiatuta hiru orkestra-suite egin zituen egileak, 1911n, 1919an eta 1945ean. Suite bat erredukzio bat da, beste obra handiago baten zati garrantzitsuenen multzo bat biltzen duen musika-lana. Entzungo dugun suitea 1945ean konposatu zuena da.


Suzko txoria orkestra-kolore ederrez, erritmo kementsuez, instrumentu-efektu oso originalez (glissandoak, sordinak, etab.), harmonia desberdinez eta melodia ederrez gozatzeko aukera ematen digun musika da.

Balletaren argumentua

Suitea interpretatuko den arren, argumentu originala ezagutzeak lagundu diezaguke aktiboki entzuten eta gure buruan irudiak gogora ekartzen.

Suzko txoria Errusiako herri ipuin batean oinarritutako balleta da. Istoria Ivan printzea sorgindutako lorategi batean sartu eta urre-koloreko luma distiratsuko txori magiko misteriotso bat harrapatzen duenean hasten da. Hegaztiak askatzeko eskatu dio eta, trukean, etorkizunean lagunduko dion luma magikoa eman dio.

Lorategia Kaschei azti gaiztoarena dela jakin du Ivanek. Hamahiru printzesa dauzka preso Kascheik. Ivan haietako batekin maitemindu da, eta, Kascheik harrapatu duenean, luma erabili du txoriari deitzeko. Hark aztiaren zerbitzariak sorgindu ditu, eta bere arima arrautza magiko batean ezkutatuta duela jakinarazi du. Suntsitzean, sorginkeria hautsi egiten da. Ivan printzesarekin ezkontzen da, eta denek ospatzen dute gaizkiaren aurkako garaipena.



1. Sarrera

Suzko txoria balleteko suitearen lehen mugimendua Sarrera bada ere, kontestualizazio labur batekin hasiko da saioa, non Maria Setuain bitartekariak obraren hainbat alderdi komentatuko dituen.

Aurretik, ordea, orkestrako musikariak eszenatokira nola ateratzen diren eta dagozkien eserlekuetan nola jartzen diren ere ikusi ahal izango dugu, atalka antolatuta.

- Bilatu orkestra sinfoniko baten sekzio instrumentalen kokapen-planoak.
- Ikusi bideo hau: *Suzko txoria* lanaren 1945eko suitea joko du Murtziako Eskualdeko Orkestra Sinfonikoak, Virginia Martínezen zuzendaritzapean. Prestatu agertokian duen kokapenaren planoak. OSNren entsegu orokorrera joaten zaretenean, begiratu nola jartzen diren. Antzekoa al da? zer aldaketa sumatzen dituzue?

Baluartera joan aurretik, ikusi Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren sareak:

- Ikusi denboraldi honetako aurkezpen bideoa eta komentatu zein artistak egiten dizuen deigarriena.
- Bideo honetan, OSNren gizarte- eta hezkuntza-lanari buruz gehiago jakin dezakezue.

2. Bariazioak

Suitearen bigarren mugimendua Suzko txoriaren dantza eta bariazioa da. Txori protagonista lehen aldiz agertzen den balleteko eszenari dagokio. Musikak burrunba moduko batez irudikatzen du, eta ondotik iraulketa eder eta jostalari bat dator.

Dantzan, bariazioa ballet baten zenbaki edo zati bat da, non dantzari batek bakar bat dantzatzen duen.

- Zati hau Maurice Béjarten koreografian ikus dezakezue.

Musikan, bariazioa teknika formal bat da, non tema bat aurkezten den eta ondoren errepikatzen den aldatuta. Aldaketak melodian, erritmoan, harmonian... eman daitezke

- Hemen ikus ditzakezue pianorako bariazio klasiko batzuk: Ah! Vous dirai-je mamam! Wolfgang A. Mozartenak.
- Stravinskyra itzuliz, Johann Sebastian Bachen *Vom Himmel hoch da komm' ich her* koraletik sortutako Bariazio kanoniko interesgarri hauek entzutea (eta partitura jarraitzen saiatzea) gomendatzen dizuegu.
- Bachen eta bere koraleen eragina Stravinskyren beste lan batzuetan aurki dezakegu, Soldaduen Historia edo Salmoen Sinfonia kasu.

3. Bariazio plastikoak



Arte plastikoetan ere tema baten inguruan egin daiteke bariazioa, testurak, koloreak, lerroak... aldatuz

Eskubiko marrazkia Stravinskyren erretratueta bat da, bere lagun Pablo Picassok egina. Picassok berak diseinatu zituen eszenografia eta jantziak bere *Pulcinella* balletaren estreinaldirako, berriz ere Errusiar Balletekin.

- Hurrengo orrialdean, erreparatu hainbat sortzailek erretratu horren gainean egin dituzten bariazioei. Zer elementu aldatzen dira horietako bakoitzean?
- Egin zeuen bariazioak Stravinskyren erretratu horren gainean. Picassoren beste lan batzuekin ere egin ditzakezue, edo Malagako margolariaren erretratuekin.



JARDUERAK



4. A zer eskandalua!

Gai baten inguruko bariazioekin jarraitzen dugu, baina oraingoan literaturaren ikuspuntutik. Raymond Queneauren Estilo ariketak inspiraziotzat hartuta, Stravinskyren historiako pasadizo ezagun batetik abiatuko gara, eta hainbat erataria idatziko dugu: *Udaberriaren sagaratzea* obraren estreinaldi eskandalagarria.

1913ko maiatzaren 29a

Pariseko tenperatura 30° zentigradukoa da. Eliseoko Zelaietako Antzokian Igor Stravinskyren “Udaberriaren sagaratzea” estreinatuko da. Diaghileveko Errusiar Balletek Vaslav Nijinskiri eskatutako koreografia taularatzen dute... Musika garaiko kanon harmoniko, tinbriko eta erritmikoetatik urruntzen da. Argumentua bitxia eta basatia da. Publikoa interpreteei txistuka hasten da. Oihuak eta txistuak ugaritu egiten dira bigarren ekitaldian, musikari gailenduz. Stravinsky antzokitik joan da.

- Idatz ezazue testu bat, gertaera hori hainbat estilotatik kontatzen duena: misterioa, umorea, bertsoa, kazetaritza, txutxu-mutxuak...
- Ikuspuntu desberdinetatik ere abiatu zaitezke: orkestrako musikari bat, Igor Stravinsky konpositorea, Errusiar Balletetako dantzari bat, publikoko norbait, aretoko langileak, kazetari bat, kritikari bat...
- Inspirazio gisa, Coco Chanel & Igor Stravinsky filmean (2010) estreinaldiko eszena ikustea iradokitzen dizuegu.


5. Nola jantzi?

Ikusiko duzue musikariak ez doazela “kontzertuz” jantzita (normalean frakez gizonak eta beltzez emakumeak). Entsegua denez, bere janzkera informalagoa eta erosoagoa izango da.

- Zuen ikastetxean bada janzteko araurik? nola moldatzen duzue zuen *outfit*a lagunartean ateratzeko, zita baterako, zuen artista gogokoenen kontzertu batera joateko, antzerkira joateko...?
- Grabatu reel bat auditoriora joateko *outfit* ideiak iradokiz.

Antzerkirako, balleterako edo operarako jantzien diseinuei *figurin* deritze. Hemen Bakst-ek 1910 eta 1913an *Suzko txoria* antzezlanerako egindako bi lan erakusten dizkizuegu. Diseinu horiek Ekialdeko eta Errusiako estetikan inspiratzen dira, hurrenez hurren.

- Pertsonaiantzako figurinak diseinatu ahal izango zenituzkete, Nafarroako jantzi tradizioaletan edo egungo modan oinarrituta?



6. Maisuak

Gida didaktiko honetan, *Suzko txoria* laneko koreografia historikoak egin dituzten **Dantzako bi maisu** izendatzen dira: Mikhail Fokine, 1910ean Parisen estreinaldi orokorrako koreografoa, eta Maurice Béjart, 1964an Bruselan bere bertsioa estreinatu zuena.

- Bilatu haiei buruzko informazioa eta haien sorkuntzen eta interpretazioen irudiak.
- Prestatu koreografo nazional eta nazioartekoen, historikoen eta gaur egungoen zerrenda bat.
- Bideo honetan ikus dezakezue Georgiako Balleteko *Suzko txoria lanaren teaserra*, Fokineren koreografiarekin, 2016an Baluartan bisitatu zuena. Interesatuta bazaudete, *Bolshoi Balletaren Firebird filma* ere eskuragarri dago, 1910eko estreinaldiko ekoizpena (koreografia, jantziak eta espazio eszenikoa) pantailara eramaten duena.
- Hemen ikus dezakezue *Maurice Béjarten koreografia osoa* eta bere estetika eta estiloa Fokinerenekin konparatu.

Orkestra-zuzendariek ere maisu izena hartzen dute.

- Begiratu ondo entsegu egunean Perry So maisuak egiten duen lanari eta egiten dituen mugimenduei.
- Orkestra zuzendari gehiago ezagutzen al dituzue? Egin egungo maisuen zerrenda bat.

6. Amaiera

Suitearen azken zenbakia, hain zuzen ere, *Finale* da. Badu tema bat aurkezten dena eta atal desberdinetan agertzen doana, bariazio erritmikoekin

- Goza ezazue *Finale* honekin [Béjarten koreografian](#).
- Beste maisu handi batek zuzendutako bideo honetan ere entzun dezakezue: [Claudio Abbado](#).
- Stravinskyren musika jotzera animatzen bazarete, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa entzun aurretik edo ondoren, azken mugimenduaren moldaketa hau jarraituz egin dezakezue, *Finale*.
- Agian norbaiti ondo ematen zaio letrak sortzea, doinuari testua jarri eta agogika landuz kantatu, beste tempo batzuk sartuz, hala nola *andantea*, *allegroa*...Egiaztatu nola aldatzen den kantaren izaera tempo batera edo bestera interpretatzen den arabera.

EL PÁJARO DE FUEGO
Finale
Stravinsky Lento Arreglo instrumental: Ana Hernández

Flauta / Voz
carillón/xilófono soprano
xilófono/metalófono alto
xilófono/metalófono bajo
pandero

1. vez 2. vez rit.

7. Argibideen eskuliburua

Pentsatu zer portaera- eta jarrera-arau diren egokiak zuzeneko kontzertu batera joateko. Beste mota bateko kultur edo kirol ekitaldietarako berberak dira? Gauza bera al da musika ikasgelan edo entzunareto batean entzutea? Begiratu zerrenda honi, eta esan punturen bat gehitu edo kenduko zenuketen:

1. Izan zaitez puntuala. Izan ere, normalean ez zaie sartzen uzten entsegua edo kontzertua hasitakoan iristen diren pertsonei.
2. Eseri txukun. Auditorioetan kontzertuen hasiera iragartzeko abisu-seinaleak ematen dira.
3. Isiltasuna mantendu, musikariek musikaren interpretazioan kontzentratzeko aukera izan dezaten eta gainerakook ere gozatzeko.
4. Itzali telefono mugikorrak eta erloju-alarmak.
5. Ez utzi eserlekua entsegu orokorraren erdian. Saiatu komunera joaten aretora sartu aurretik.
6. Ez jan eta ez edan entseguak irauten duen bitartean. Zure belarria eta espiritua elikatuko dituzu... eta irteeran bazkalduko duzu.
7. Artistei txalo egiten die entsegua amaitzean, egindako lana eskertzeko. Ez txistu egin auditorioan.
8. Irten gelatik txukun eta lasai. Zain egon, korridoreetatik gertuen dauden eserlekuetako kideak ateratzen joan arte.
9. Baina, batez ere... gozatu Stravinskyren suite zoragarri honekin! !



Gida didaktikoa

▽
DBH eta Batxillergoa



FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA



ORQUESTA
SINFÓNICA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA